



GAITASUN MAILAREN CURRÍCULUMA

SARRERA

C1 maila Oinarrizko bitarteko mailaren eta maila Aurreratuaren ondorengoa da, eta horien araudi bera du oinarri (1629/06 Errege Dekretua eta Estatuaren Lege Organikoko 6.1 artikulua). Baina, aurrekoak ez bezala, maila hau ez dago garatuta aipatu Errege Dekretuan; hain zuzen ere, Hezkuntza-Administrazioek aukera dute C1 eta C2 mailak antolatzeko eta emateko. (Bigarren xedapen gehigarria).

Hizkuntzetarako Europako Erreferentziazko Esparru Komuna: ikaskuntza, irakaskuntza, ebaluazioaren (MCER) arabera, maila horren eta aurrekoen arteko alderik nabarmenena komunikazio arina eta naturala ahalbidetzen duen hizkuntza-errepertorio zabala eskuratzea da. Komunikatzeko erraztasun handiago horrek aurreko mailetan eskuratutako diskurtso-trebetasunetan oinarrituta egon behar du.

Ikaskuntzan autonomia izatea da maila honen beste oinarrietako bat. Autonomiak handia izan behar du, izan ere, nahikoa tresna eta ezagutza izango baitute beren kabuz aurrera egiteko, irakaslearen argibideei jarraitzearekin batera. Ikasgelan landu dezaketena ez da nahikoa izango. Ikasleek beren eskueran izango dituzten aukerak bilatu eta aprobetxatu behar dituzte, gelan eskuratutako gaitasunak garatzeko.

Maila honetan, ikasleek gai izan behar dute formaltasun-maila txikiagoa erabiliz moldatzeko; horrek hitzezko kortesiari loturiko elkarrizketa-estrategiak hobeto menderatzea ekarriko du berekin (biziagotze-baliabideak, leuntzea, eta abar). Halaber, komunikazioko eta diskurtsoko arauak eskatuko dieten formaltasun handiagoko egoeretan elkarreragiten jakin beharko dute. Horrek guztiak esamolde idiomatikoak eta lagunartekoak barne hartzen dituzten gaitasun funtzionalaren eta adierazleen garapen-maila handia eskatzen du.

MCER-ek hizkuntzen menderakuntzan goragoko beste maila bat ere ezarri du (C2), alegia, Maisutza; maila horrek «ez du eskatzen hiztun natiboen gaitasunik edo natiboen antzekorik» (MCER 3.6.).

XEDEA

Hizkuntza bat hitz egiten den herrialdeko edo herrialdeetako hizkuntzaren eta kulturaren gainean duten ezagutza praktikatzea, eta herrialde horietako biztanleekin komunikatzea, pertsona gisa eta lanbideari dagokionez gara daitezten. Jakitun izanik, beren jarrera eta alderdi afektiboak kontrolatzea, ikasiko duten hizkuntzaren kulturari dagokionez. Gaitasun kognitiboak, hizkuntzazkoak, afektiboak, estetikoak eta kulturalak indartzea. XXI. mendean berezkoak diren nazioarteko mugikortasunerako eta lankidetzarako prest egotea.

MAILAREN DEFINIZIOA

MCER-ek «menderatze operatibo eraginkor» edo «menderatze operatibo egoki» gisa definitu du maila hau.

Horrek hau dakar berekin:

Egon daitezkeen edozein egoeratan, hizkuntza jasotzean eta ekoiztean malgutasunez eta segurtasunez erabiltzea; ahozko eta idatzizko testuak ulertzea eta ekoiztea, testu zailak ere bai, gai orokorren edo beren interesekoen ingurukoak; hizkuntza-baliabideen errepertorio zabala



ondo menderatzea, egoeraren arabera; eta ahospakpen erlaxatuak eta bestelako doinuak ulertzea, zarata dagoen inguruetan ere.

HELBURU OROKORRAK

Edozein motatako transakzioak gauzatzea, nahiz eta delikatuak eta konplexuak izan. Gizarteko elkarrekintzetan zein elkarrekintza akademikoetan eta lan arlokoetan parte hartzea eta aurrea hartzea. Edozein motatako ahozko eta idatzizko testuekin moldatzea, egoera eta gaia edozein direla ere. Hizkuntzaren ikaskuntza jakitun izanik eta modu autonomoan kudeatzea. Norberaren ikasteko prozesuaren plangintza egitea, eta erabilgarri dauden baliabideen ahalik eta etekin handiena lortzea. Ikasketa-prozesuan eta hizkuntza erabiltzean estrategia berriak garatzea norberaren ekimenez.

BERARIAZKO HELBURUAK

Ahozko eta idatzizko elkarrekintza

Arintasunez eta naturaltasunez hitz egitea, ia ahaleginik egin gabe eta esamolde egokiak oso modu agerikoan bilatu gabe. Lexiko zabala menderatzea; horrek bere urritasunak itzulinguruekin erraz betetzea ahalbidetuko dio. Kontzeptualki zaila den gai batek bakarrik oztopa dezake diskurtso arina eta naturala. Hizkuntza malgutasunez eta modu eraginkorrean erabiltzea, gizarteko eta lan arloko xedeetarako. Ideiak eta iritziak zehaztasunez azaltzea eta norberaren hitzak beste hizketakideen hitzekin abileziaz lotzea.

Ahozko ulermena

Testu luzeak ulertzea, argi egituratuta ez daudenean ere. Diskurtsoaren komunikazio-asmoak ulertzea, loturak implizituki agertzen direnean eta agerian adierazten ez direnean. Ahalegin handirik gabe filmak eta telebistako programak ulertzea.

Irakurrizko ulermena

Literaturako edo ziur asko beren gizarte-, lan- edo ikasketa-bizitzan aurkituko dituzten gertakizunetan oinarritutako testu luzeak eta konplexuak ulertzea. Jarrera eta iritzi implizituak zein esplizituak barne hartzen dituzten xehetasun sotilak identifikatzea. Askotariko estiloak aintzat hartzea. Artikulu espezializatuak ulertzea, bai eta beren espezialitatearekin loturarik ez dutenak ere. Argibide tekniko luzeak ulertzea eta jarraitzea, nahiz eta beren espezialitatekoak ez izan, betiere zati zailak berriz irakurtzeko aukera dutenean.

Mintzamena

Hizkuntza malgutasunez eta eraginkortasunez erabiltzea gizarteko xedeetarako, erabilera emozionala, norbaiti edo zerbaiti buruzkoa eta dibertigarria barne. Gai konplexuei buruzko aurkezpen argiak eta zehatzak egitea. Aurkezpenetan bigarren mailako gaiak sartzeta. Ideia zehatzak garatzea eta bukaera egokiarekin amaitzea.

Idazmena



Testu argiak eta ondo egituratuak idaztea, norberaren ikuspegiak luze samar azalduz. Gai konplexuen inguruko eskutitzak, txostenak eta idazlanak idaztea, eta alderdi interesgarriak nabarmentzea.

Idazten den testuari eta irakurleei egokitutako estiloa aukeratzea.

Gaitasun soziokulturala eta soziolinguistikoa

Esamolde idiomatiko eta lagunarteko asko ezagutzea, eta erregistro aldaketez ohartzeta, nahiz eta, noizean behin, xehetasunak baieztatzeko beharra izan, batez ere doinua ezezaguna bada. Hizkuntza malgutasunez eta eraginkortasunez erabiltzea gizarteko helburuetarako, erabilera emozionala, norbaiti edo zerbaiti buruzkoa eta umorezkoa barne.

Argot eta erabilera idiomatiko nahikoa erabiltzen duten filmak ulertzea.

Hizkuntza-gaitasuna

Argitasunez adierazteko eta esan nahi dena mugatu gabe hitz egiteko hizkuntza-elementu sorta zabala modu egokian aurkeztea aukeratzea.

Lexiko zabala ongi menderatzea; horrek urritasunak erraztasunez gainditzea ahalbidetuko die itzuliguruaren bitartez, nahiz eta noizean behin hanka sartze ez oso garrantzitsuak izan.

Saiheste-estrategiak erabiltzea, nabarmen geratu gabe.

Esamolde idiomatikoak eta lagunartekoak ondo menderatzea.

Gramatikaren zuzentasun-maila handia eta iraunkorra izatea.

Intonazioa aldatzea eta esaldian enfasia behar bezala jartzea, esanahi leuna duten ñabardurak adierazteko.

Egitura eta testua paragrafoetan banatzea modu sendoan eta praktikoan menderatzea, eta puntuazioa eta ortografia behar bezala erabiltzea, noizean behingo hanka sartzeak salbu.

Gaitasun estrategikoa

Hizkuntzaren ikaskuntza jakitun izanik eta modu autonomoan kudeatzea.

Programa negoziatzea (helburua, edukiak, metodologia eta ebaluazioa), norberaren helburuak eta taldeko gainerako kideenak abiapuntu hartuta.

Norberaren ikasketa-prozesuaren plangintza egitea, eta erabilgarri dauden baliabideetatik ahalik eta etekin handiena lortzea (denborak eta espazioak, kontsulta-iturriak, irakaskuntza-materiala, eta abar).

Hizkuntza ikasteko prozesuan eta hizkuntza erabiltzean estrategia berriak garatzea, norberaren ekimenez.

Ikasketa-prozesuan eragina duten alderdi psikoafektiboak jakitun izanik kontrolatzea.

Norberaren ekimenez, taldeko kideen artean lankidetzazko, arraitasunezko eta konfiantzazko giroa sortzea eta mantentzea.

EDUKIAK

KOMUNIKAZIOA: GAITASUN PRAGMATIKOAK

1. KOMUNIKAZIO-JARDUERAK

Ahozko eta idatzizko komunikaziorako gaitasuna garatzean datza. Gaitasun hori erabiliz baino ez da garatzen.

Entzunezko ulermeneko jarduerak

Elkarrekintzan

Elkarrizketa konplexuei erraztasunez jarraitzea, bai eta hirugarren pertsonen artekoak direnean ere.

Eztabaida-taldeetan parte hartzea, gai abstraktuei, konplexuei eta ezezagunei buruzkoak direnean ere.



Esamolde idiomatiko eta lagunarteko asko ezagutzea.
Erregistro-aldaketei antzematea eta haietara egokitzea.
Argibide tekniko luzeei jarraitzea, nahiz eta beren espezialitatekoak ez izan.
Informazioa eta iritziak trukitzea, egiaztatzea eta baieztatzea.
Edozein motatako gaietan segurtasunez elkarrekitea.
Etenaldiek, etendurek, tonuak, intonazioak, mugimenduek eta keinuek dituzten komunikazio-
asmoak hautematea eta horiek erabiltzen jakitea.

Entzule gisa

Elkarrizketak eta eztabaidak

Beren espezialitateetik haratago doazen gai abstraktuei eta konplexuei buruzko diskurtso luzeei jarraitzea, xehetasunen bat baieztatu beharra izan arren, batez ere doinura ohituta ez badago.

Narrazioak, deskribapenak eta azalpenak

Konferentzia, hizketaldi eta eztabaida gehienak nolabaiteko erraztasunez ulertzea.
Konferentzietan ohar zehatzak hartzea.

Iragarkiak eta jarraibideak

Argiak ez diren eta soinu-distortsioren bat dagoen (geltoki batean, adibidez) adierazpen publikoetatik berariazko informazioa ateratzea.
Jarraibide luzeak eta konplexuak, produktuen eta zerbitzuen zehaztapenak ulertzea.

Emankizunak eta grabatutako materiala

Grabatutako eta transmititutako askotariko materiala ulertzea, ohiz kanpoko erabileraren bat barne; eta zenbait garrantzi txikiko kontu eta zolitasun identifikatzea, hala nola, hiztunen arteko jarrerak eta harreman implizituak.
Argot edo lagunarteko hizkera eta esamolde idiomatiko ugari erabiltzen duten filmak ulertzea.

Irakurrizko ulermeneko jarduerak

A. Elkarrekintzan: gutunak eta oharrak

Edozein motatako gutunak, oharrak, mezu elektronikoak, SMSak, faxak, eta antzekoak xehetasun guztiekin ulertzea, bai esparru pertsonalean, bai eta ikasketa- edo lan-arloan ere, hiztegia noizean behin erabiliz.
Hizketakidearen formaltasun- edo hurbiltasun-mailari antzematea, kortesia-formulak, informazioa eta erregistroa abiapuntu hartuta; eta beren erantzunetan aplikatzea.

B. Irakurle gisa

Orientazioa eta informazioa

Testu luzeetan berariazko informazioa erraz aurkitzea, eta askotariko iturrietatik datorren informazioa biltzea, berariazko eginkizunak gauzatzeko.
Oso espezializatuak ez diren gaiei buruzko berrien, artikuluen, txostenen eta iragarkien edukia eta garrantzia azkar identifikatzea.

Argudiatzea

Zenbait testu luze eta konplexu xehetasun guztiekin ulertzea, bai gizarte-bizitzakoak, bai eta lan- edo ikasketa-arlokoak ere.



Jarrera eta iritzi esplizituak zein inplizituak barne hartzen dituzten xehetasun sotilak identifikatzea.

Jarraibideak

Makina edo prozedura berriei buruzko jarraibide luzeak eta konplexuak xehetasun osoz ulertzea, bai beren espezialitateari loturiko jarraibideak, bai eta beren espezialitatearekin loturarik ez dutenak ere, betiere zati zailak berriz irakurtzeko aukera dutenean.

Jolaserako irakurketa

Gai unibertsalei buruzko gaur egungo literatura-testuetako argumentua, gertaera nagusiak eta bigarren mailakoak, pertsonaien ezaugarriak eta gaia ulertzea, nahiz eta testuotan esamolde idiomatikoak edo lagun arteko hizkera erabili.

Testua dagozkion ezaugarri kulturalen barruan interpretatzea.

Mintzameneko jarduerak

A. Elkarrekintzan

Elkarrekintza orokorra

Hiztun natiboekin elkarrizketa konplexuetan elkarrekitea, gai abstraktuei, konplexuei eta ezezagunei buruzkoetan ere bai, arintasunez eta ia ahaleginik gabe.

Garrantzitsu iruditzen zaizkien gertakariak eta iritziak nabarmentzea intonazioaren, lexiko egokiaren, interjekzioen eta abarren bitartez.

Elkarrizketa eta eztabaidak

Hiztun natiboekin zehaztasunez eta arintasunez hitz egitea, ia ahaleginik egin gabe, eta esanahi sotilak dituzten ñabardurak helaraziz.

Beraientzat zenbait gertakariak eta esperientziak duten garrantzia helaraztea, eta horiek eragiten dieten emozioa adieraztea.

Askotariko sentimenduak adieraztea eta haiei erantzutea, besteak beste, ustekabea, zoriontasuna, tristura, interesa eta axolagabetasuna.

Gai baten inguruan dituzten ikuspegiak azaltzea, eta askotariko aukeren abantailak eta desabantailak azaltzea.

Argumentuak argitasunez garatzea, eta ideia osagarriak eta adibide egokiak luze samar azaltzea.

Beste hizketakide batzuen ikuspegiei eta argumentuei buruzko iruzkinak egitea.

Negoziaketak

Transakzio zail eta konplexuetan trebetasun handiz moldatzea, nahiz eta zailtasunak agertu; eta beste batzuei ere transakzio horiek egiten laguntzea.

Ñabardura-aberastasuna erakutsiz gogobetetze- edo pozik ez egote maila adieraztea eta balorazio egokiak egitea, gauzatutako transakzioetan nabarmentzekoak diren alderdiak zehaztuz.

Dendetan, banketxeetan eta antzekoetan ohikoak izaten ez diren egoerak ebaztea; erosketak itzultzea, adibidez.

Zerbait egiteari buruzko jarraibideak ematea, bai eta luzeak, zehatzak eta doiak ere.

Askotariko iturrietako argudioak eta informazioa laburbiltzea, txostenak egiteko.

Elkarrizketak

Naturaltasunez eta ia ahaleginik egin gabe erantzutea elkarrizketa, argibide-eskaera edo antzekoren bateko galderei.



Beren ideiak elkarrizketa batean garatzea eta behar bezala aurrea hartzea.
Egoeraren arabera, eskatzen den hurbiltasun- edo formaltasun-maila mantentzea.

Diskurtsoa kontrolatzea

Hizketakideek ulertu dutela ziurtatzea.

Esandakoa ulertu dela baieztatzea, errepikatzearen, berriz azaltzearen edo parafraseatzearen bitartez.

Esanahiak argitzea askotariko baliabideen bitartez.

Informazioa baieztatzea edo gezurtatzea. Informazioa zuzentzea.

Nork bere burua zuzentzea.

B. Hiztun gisa

Deskribapena eta narrazioa

Gai konplexuei buruzko deskribapen eta aurkezpen argiak eta zehatzak egitea, eta bestelako gaiak ere sartzeara.

Ideia zehatzak garatzea eta bukaera egokiarekin amaitzea.

Narrazio konplexuak egitea, narrazio horietan bestelako gaiak sartzeara, alderdi jakinak garatzea eta bukaera egokiarekin amaitzea.

Denbora-koherentzia eta koherentzia logikoa mantentzea, eta nahikoa informazio garrantzitsu eskaintzea.

Ideiak lotzeko lokailuak eta diskurtso-adierazgailuak malgutasunez erabiltzea.

Jendaurrean hitz egitea

Adierazpenak arintasunez egitea, ia ahaleginik egin gabe, eta esanahi sotilak dituzten ñabardurak zehaztasunez helarazteko intonazioa erabiltzea.

Gai konplexuei buruzko aurkezpen argiak eta ongi egituratuak egitea, nolabait luzatzea eta beren ikuspuntuak defendatzea ideia osagarriak, arrazoiak eta adibide egokiak erabiliz.

Diskurtso-adierazgailuak behar bezala erabiltzea.

Naturaltasunez eta ia ahaleginik egin gabe erantzutea.

1.4. Idazmeneko jarduerak

Elkarrekintzan

Gai konplexuei buruzko azalpen argiak eta ondo egituratuak idaztea, eta ideia nagusiak nabarmentzea.

Ikuspuntuak defendatzeko idazki luze samarrak idaztea, eta ideia osagarriak, arrazoiak eta adibide egokiak sartzeara.

Normalean harremana duten pertsonak (ikaskideak, irakasleak, eta abar) informatzeko oharrak edo haiei berehalako azalpenak eskatzeko oharrak idaztea, eta garrantzitsutzat jotzen dutena nabarmentzea.

Mezu elektronikoak eta SMSak idaztea.

Gutun formalak eta merkataritzako gutunak idaztea.

Ekoizpena

Deskribapenak eta irudizko testuak argi, zehaztasunez eta ongi egituratuta idaztea, konbentzitzeko moduko estiloa, pertsonala eta naturala eta idazkiaren hartzaile izango diren irakurleei egokitua erabiliz.

Ikuspuntu jakin baten alde edo aurka idaztea, argudioak ematea eta askotariko aukeren abantailak eta desabantailak azaltzea.

Hainbat iturritako informazioa eta argudioak laburbiltzea.

Film, liburu edo antzerki lanen bati buruzko aipamena idaztea.



TESTUAK

Hemen, «testua» hitza zentzu zabalean erabili da, eta MCER-ek eman dizkion ezaugarriekin: «Testua diskurtsoko (ahozkoa edo idatzizkoa) edozein sekuentzia da. Berariazko eremu bati lotuta dago eta eginkizun bat gauzatzean hizkuntza-jarduera baten ardatza da, dela laguntza edo xede gisa, dela produktu edo prozesu gisa» (MCER 2.1.).

Hortaz, testua terminoa erabiltzen da erabiltzaileek jaso, ekoiztu edo trukutzen duten ahozko edo idatzizko hizkuntzako edozein zatiri buruz hitz egiteko. Ez dago testurik gabeko komunikazio-ekintzarik.

Maila honetako testuak luzeak eta konplexuak izan daitezke. Erabiltzailearen espezialitatekoak ez diren gai teknikoei buruzkoak ere izan daitezke, konplexutasun handiko egitura dutenak.

Halaber, argota eta hizkuntza-esamoldeak eta lagun arteko esamoldeak ager daitezke.

Garatzen dituzten ideiak inplizituki edo esplizituki ager daitezke eta alderdi ironikoak izan ditzakete. Ahozko testuak, agian, ez dira ongi egituratuta egongo, eta giro zaratatsuan sor daitezke. Grabatutako testuak, beharbada, ez dira oso kalitate onekoak izango.

2.1. Ahozko testuak

Elkarrekintzan

Aurrez aurreko elkarrizketa informalak eta formalak, gai abstraktuei, konplexuei eta ezezagunei buruzkoak ere bai.

Interes orokorreko negoziaketak.

Telefono bidezko elkarrizketa formalak eta informalak.

Ikuspuntuak trukitzea.

Gatazkak ebaztea.

Edozein motatako aurrez aurreko transakzioak.

Ondasunak eta zerbitzuak eskuratzea.

Ziurtagiriak lortzea (bizilekuari dagozkionak, sendagilearenak, eta abar).

Telefono bidezko transakzio-elkarrizketak; elkarrizketa konplexuak ere bai.

Nolabaiteko konplexutasuna duten gaiei buruzko eztabaidak eta jendaurreko hizketaldiak, bai esparru pertsonalekoak, bai eta ikasketa- edo lanbide-arlokoak ere.

Elkarrizketak (lanekoak, ikasketetakoak, eta abar), elkarrizketatzaile eta elkarrizketatu gisa.

Jendaurreko jarraibide luzeak.

Norberaren espezialitateari loturiko gaien inguruko eta oso ondo egituratutako bilera formaletan esku hartzea.

Gai konplexuei buruzko jendaurreko aurkezpen luze samarrak (proiektuak, txostenak, esperientziak, eta abar).

Entzule gisa

Bertan egitekoak

Beren espezialitatekoak diren edo ez diren gai abstraktuei buruzko hitzaldi eta konferentzia luzeak.

Hitzaldi eta konferentzia luze samarrak (aurkezpenak, ekitaldi formalak, eta abar).

Mahai-inguruak eta jendaurreko aurkezpen luze samarrak, beren espezialitatekoak izan, edo ez.

Mota guztietako antzerki-emankizunak.

Hainbat hiztunen arteko elkarrizketak.

Txistekak.

Elizako sermoiak.

Emandako edo grabatutako materiala

Jendaurreko jarraibide luzeak.



Telebistaz edo irratiz emandako mota guztietako berriak.
Edozein motatako filmak.
Telebistako edo irratiko dokumentalak.
Abestien hitzak.
Publizitatea irratian eta telebistan.
Erantzungailuan grabatutako jarraibideak eta mezuak.

Ekoizpena

Gai abstraktuen eta konplexuen azalpenak.
Oharpenak, jarraibideak, arauak, aholkuak eta debekuak, bai eta zabalak ere.
Gertakizunen, esperientzien, pasadizoen eta proiektuen kontakizun zehatzak.
Istorioen kontaketak.
Beren espezialitateko gaien inguruko ideien, justifikazioen eta azalpenen arrazoiketa.
Arazoak aurkeztea.
Ekitaldien, liburuen, filmen edo pertsonen aurkezpena.
Liburuen, filmen, telebistako programen eta abarren balioztatzea.

2.2. Testu idatziak

Elkarrekintza

Gutunak, faxak, mezu elektronikoko konplexuak eta luzeak, merkataritzakoak edo lan-arlokoak.
Eztabaida-leku birtualetako mezuak (blogak).
Txatak.
Kontratu bakunak (lanekoak, alokairukoak).
Jendaurreko jarraibide luzeak.

Ulermena

Inplikazio soziokulturalak dituzten publizitate-iragarkiak.
Iritzi-artikuluak aldizkari espezializatuetan.
Norberaren espezialitateari loturiko gaien inguruko txosten luzeak eta konplexuak.
Mota guztietako web orriak.
Testu-liburuak.
Thesaurusak.
Eleberriak eta ipuinak.
Mota guztietako antzerki-lanak.
Konplexu samarrak diren olerkiak.
Txistek.
Komikiak.
Liburuen, filmen edo antzerki-lanen aipamenak.

Ekoizpena

Luzera ertaineko lanbide-arloko txostenak (proiektu baten garapena) edo gai abstraktuei buruzkoak (ikuspuntu bat defendatzea).
Gutunak, faxak, mezu elektronikoko konplexuak eta luzeak, merkataritzakoak edo lan-arlokoak.
Jendaurreko jarraibide luzeak.
Eztabaida-leku birtualetako mezuak. Txatak.
Filmek, eleberrien edo antzerki-lanen aipamenak, luzera ertainekoak.
Gelako lanak (ikasgelan edo gelatik kanpo idatzitako idazlanak).
Txistek.

EGINKIZUNAK



Hizkuntzaren eginkizunak dira jendeak hizkuntza erabiltzearen bidez egin ditzakeen gauza motak. Hizkuntza ezagutzea, bere horretan, ez da helburua, nahiz eta oso garrantzitsua den. Hizkuntzak ikastearen azken xedea hizkuntza erabiltzeko gai izatea da, hizkuntza horrekin behar dena egin ahal izatea.

Eginkizunak (mikroeginkizunak) esaldi isolatuak (oro har, laburrak) funtzionalki erabiltzeko kategoriak dira, normalean elkarrekintzetan hitz egiteko txanda, adibidez. (MCER 5.2.3.2.)

Maila honetan, gaitasun funtzionalaren garapenak garrantzi berezia hartzen du. Izan ere, gaitasun hori zuzen erabiltzea gakoa da hizkuntza erabiltzean, behar bezala zehazteko eta pertsonen arteko harremanetan hurbiltasun handiagoa edo txikiagoa lortzeko.

Hizkuntzaren erabilera sozialak

Agurtzea eta agurrei erantzutea.

Norbaiti zuzentzea.

Norbait aurkeztea, modu formalean edo informalean.

Aurkezpen bati erantzutea.

Aurkezpen baten beharra dela eta galdetzea.

Norbaitek aurkez zaitzan eskatzea.

Norbaiti ongietorria ematea. Ongietorri bati erantzutea.

Desenkusatzea eta desenkusa bati erantzutea.

Eskerrak ematea eta esker-emateei erantzutea.

Topa egitea.

Urtebetetzeetan eta bestelako jaietan eta ospakizunetan zorionetzea.

Asmo onak adieraztea, arrakasta edo zorte ona opatzea.

Zorion-emateei eta asmo onei erantzutea.

Agurtzea.

Komunikazioa kontrolatzea

Kontakizunari interesez jarraitzen zaiola adieraztea.

Ez dela ulertzen adieraztea eta errepika, letreia edo zerbait argi dadin eskatzea.

Ulertu ez duen ikaskide bati zerbait azaltzea edo itzultzea.

Behar bezala ulertu dela baieztatu dezaten eskatzea.

Nork bere burua zuzentzea.

Falta zaigun elementua bilatzen dugun bitartean denbora hori etenaldien, keinuen, luzapenen edo itzaroteko esamoldeen bitartez betetzea.

Komunikazio-arazoren bat dagoenean inor ohartu gabe parafraseatzea.

Ahaztu zaigun edo ezagutzen ez dugun hitz baten ordez beste hitz generiko bat jartzea.

3.3. Informazio orokorra

Identifikatzea.

Denborari, xedeari, arrazoiari eta kausari buruzko informazioa eskatzea. Bestelako aukerak proposatzea.

Jakin-mina adieraztea.

Azalpenak eskatzea, zuzenean edo zuhurtziaz.

Tokiari, denborari, moduari, erari, xedeari, arrazoiari eta kausari buruzko informazioa ematea.

Aldez aurreko informazioa zuzentzea: galdera bati, baieztako esaldi bat edo ezezkoari erantzutean.

Aldez aurreko esaldia desegokia dela adieraztea.

Baieztatu dadin zuzenean edo ezkutuan eskatzea.

Informazioa zalantzan jartzea.

Aldez aurreko informazioa baieztatzea.

Deskribatzea.

Kontatzea.



Ezagutza, iritziak eta balorazioak

Iritziak eskatzea eta ematea.
Balorazioa eskatzea eta baloratzea.
Onarpena eta gaitzespena adieraztea.
Zerbaiten alde edo kontra jartzea.
Ea zerbaitekin ados dauden galdetzea. Adostasunera iristeko gonbita luzatzea.
Erabateko edo zati bateko adostasuna edo adostasunik eza adieraztea.
Eszeptizismoa erakustea.
Kontra-argudioak aurkeztea.
Ziurtasuna edo ebidentzia edo halakorik ez dagoela adieraztea.
Hipotesiak egiteko gonbita luzatzea.
Aukera, betebeharra, beharra edo halakorik ez dagoela adieraztea.
Zerbaiten gaineko ezagutzaz galdetzea.
Zerbaiten gaineko ezagutza edo ezagutzarik eza adieraztea.
Zerbait egiteko trebetasuna adieraztea eta hartaz galdetzea.
Ea zerbait gogoratzen den edo zerbait ahaztu den galdetzea.
Zer gogoratzen den edo zer ez den gogoratzen adieraztea.

3.5. Nahiak, osasun-egoerak, sentrazioak eta sentimenduak

Gustuak eta interesak adieraztea eta haietaz galdetzea.
Ezinikusia adieraztea.
Lehentasunak adieraztea eta haietaz galdetzea.
Axolagabetasuna edo lehentasunik eza adieraztea.
Nahiak, egitasmoak eta intentzioak adieraztea eta haietaz galdetzea.
Gaizki irten diren egitasmoak eta intentzioak adieraztea.
Gogo-aldarteaz galdetzea.
Poztasuna, gogobetetzea, plazera eta dibertsioa adieraztea.
Tristura, atsekabea, asperdura, betekada, haserre eta sumindura adieraztea.
Beldurra, herstura, kezka eta urduritasuna adieraztea.
Enpatia, lasaitua eta esperantza adieraztea.
Desengainua, etsipena, damua eta lotsa adieraztea.
Ezusteak, harridura, mirespena eta harrotasuna adieraztea.
Afektua adieraztea.
Sentrazio fisikoak adieraztea.

3.6. Eskaerak, jarraibideak eta iradokizunak

Aginduak eta jarraibideak zuzenean, modu leunean edo isilean ematea.
Objektuak, mesedeak edo laguntza modu leunean edo isilean eskatzea.
Arren eskatzea.
Aldez aurreko edo auresuposatutako agindua errepikatzea.
Agindu, eskaera edo erreku bati erantzutea, eta betetzeari baietz esatea, erreparoeekin edo halakorik gabe.
Konpromiso bat saihestea, modu adeitsuan edo irmo ezetz esanez.
Baimena eskatzea eta ematea, eragozpenekin edo halakorik gabe. Baimena ukatzea.
Debekatzea eta debekua ukatzea.
Proposatzea eta iradokitzea.
Eskaintzea eta gonbita luzatzea.
Aldez aurreko proposamen bat baieztatu dadin eskatzea.
Proposamenak, eskaintzak edo gonbitak erreparoeekin edo halakorik gabe onartzea edo ukatzea.
Aholkuak ematea, ohartaraztea, mehatxatzea eta aurpegiratzea.
Promes egitea eta konpromisoa hartzea.
Zerbait egiteko norbere burua eskaintzea.



Lasaitzea, kontsolatzea eta animatzea.

3.7. Diskurtsoaren antolaketa

Agurtzea eta agurrei erantzutea.

Norbaitez galdetzea eta erantzutea.

Gauzen egoera orokorraz galdetzea eta dena ondo dagoela edo zerbait gaizki dagoela erantzutea.

Elkarrizketa hastea.

Kontakizun bat has dadin eskatzea eta has dadin eskatuz edo eragotziz erantzutea.

Kontakizunaren gaia sartzeta eta erantzutea.

Kontakizunari interesez jarraitzen zaiola adieraztea.

Hizketakidearen arreta kontrolatzea.

Gertakari baten sarrera egitea.

Informazioa antolatzea. Elementuak lotzea. Esandakoa berriz azaltzea. Elementu bat nabarmentzea.

Besteen hitzak sartzeta. Aipua egitea.

Digresioa irekitzea eta ixtea.

Gai bat edo gaiaren alderdi bat ukatzea.

Etetea, diskurtsoari berriz ekin diezaioketela adieraztea, norbaiti isilik egon dadila eskatzea.

Hitza ematea.

Diskurtsoa jarraitu nahi dela adieraztea. Kontakizuna bukatzea. Beste gai baten sarrera egitea.

Itxi dadin proposatzea. Ixteari uko egitea eta beste gai bat proposatzea.

4. GAITASUN PRAGMATIKOEN GARAPENA: FUNTZIONALA ETA DISKURTSIBOA

Gaitasun pragmatikoak garatzeak hizkuntza batek esaldiak komunikazio-asmo jakin batekin sortzeko eta interpretatzeko dituen baliabideak ezagutzea dakar berekin, bai eta komunikazioan arrakasta lortzeko taktikak eta estrategiak aktibatzea ahalbidetzen duten prozesuak barneratzea ere.

Maila honetan, erabiltzaileak hizkuntza testuinguruan modu eraginkorren eta eragingarrian erabiltzea ahalbidetuko dion baliabideen eta estrategien menderatze-maila izan behar du. Gai izan beharko du diskurtsoa eraikitzeo, ahozkoa nahiz idatzizkoa, argia, arina eta ongi egituratua eta deskribapen zehatzak izango dituen. Halaber, zenbait testu interpretatzeko gaitasuna ere erakutsi beharko du; testuok konplexuak eta luzeak izan daitezke, bai eta beren espezialitatekoak ez diren gaien ingurukoak ere. Informatzeaz gain, gai izan behar du helarazi nahi diren asmoa eta jarrerak erakusteko eta identifikatzeko ere.

4.1. Komunikazio-eraginkortasuna:

Ulergarritasuna. Espero diren funtzioak betetzea. Egoerara egokitzea: erregistroa (kanala, hizketakideak, testu mota). Zehaztasuna. Argitasuna.

Mezua ulertzeko eta ekoizteko egoera eta testuingurua kontuan izatea.

Ahaleginik egin gabe, komunikazio-asmoak ezagutzea eta hainbat gauza aurkitzea, besteak beste, ideia nagusiak eta bigarren mailakoak, gai-aldaketak, iritzien aldeak eta konplexuak ere izan daitezkeen testuetako hartu-emanen xehetasunak.

Behar duten informazioa lortzeko beharrezko dituzten mezuak eta testuak erraztasunez aukeratzea.

Komunikazio-xedea eraginkortasunez, argitasunez eta zehaztasunez betetzea, edozein gizarte-eta lanbide-egoeratan; eta garrantzitsuenentzat jotzen dutena nabarmentzea.

Komunikazio-asmoak ulertzea (ironia, umorea, esanahi-aldaketa), testuinguruarekin bat eta intonazioaren arabera; komunikazio-asmoak implizituki agertzen dira elkarrekintza batzuetan.

Formaltasun-mailari (jendaurrekoa edo pertsonala) eta hizketakidearekin duten konfiantzari (tratamendua, keinuak, jarrerak) antzematea eta erabiltzea, lagunarteko osagaiak ageri badira ere.



Erregistroa, tratamendua, esamoldeak, jarrerak, distantzia, mugimenduak eta ahotsaren tonua malgutasunez egokitzea komunikazio-asmoari, testu edo diskurtso motari, hizketakideei, komunikazio-kanalari eta tokiari.

Iritzien eta baieztapenen gaineko ziurtasun- eta ezagutza-maila zehaztea, eta baieztapenak indartzea edo eztitzea.

Desadostasunak, ohartarazpenak, aholkuak, baieztapenak eta kritikak zehazteko ahozko kortesiako askotariko baliabideak erabiltzea eta onartzea.

Mezuak eta testuak modu eraginkorrean eta eragingarrian ulertzeko eta helarazteko egokiak diren estrategia pertsonalak berez eta berariaz aplikatzea.

Argibideak eta zerbait errepika dadin eskatzea eta eskaintzea, komunikazio-akatsak daudenean.

4.2. Koherentzia eta antolaketa:

Ideien barne-koherentzia. Garapen egokia. Antolaketa, testu motaren arabera. Kohesio-mekanismoen aniztasuna.

Komunikazio-xedea duten ideien koherentzia errespetatzea, bai eta ideien artekoa ere, testu laburretan zein luzeetan eta beren espezialitatekoak ez diren gaiei buruzkoetan, elementu sakabanatzaileak eta hutsalik gabe.

Ideiak modu koherentean antolatzea, justifikazio gabeko jauzirik edo atzera bueltarik gabe.

Xede-hizkuntzaren kulturara egokitzea eta hartu-eman informalak eta formalak antolatzea, haiekin bat.

Denborazko edo espazioko aurrerapenak edo aurrerapen logikoak argi uztea eta ezagutzea (gaia-iruzkina, kausa-ondorioa, baldintza-gauzatzea, tesia-argudiaketa, ondorioa).

Aurrean dituen edo ekoizten dituen testuen (gutunak, elkarrekintzak, liburuxkak, oharak, aurkezpenak) ezaugarriak, antolaketa eta formatua ezagutzea eta haietara egokitzea.

Testuko baliabide grafikoak laguntza gisa hartzea, testuaren antolaketa ikusteko edo irudikatzeak, bai eta izenburuak, atalak, zerrendatzeak, enfasia eta aipuak ezagutzeko eta adierazteko ere.

Informazio nahikoa eta garrantzitsua eskaintzea, komunikazio-xedea betetze aldera. Noiz den iritzia eta noiz adibidea argitzea.

Bere hizkuntzaren eta ikasten ari denaren arteko aldeak eta antzekotasunak ikustea.

4.3. Kohesioa eta arintasuna:

Lotura- eta korreferentzia-baliabide formalak. Arintasuna.

Hartu-emanetan eta eztabaidetan baliabide egokiak ezagutzea eta eraginkortasunez erabiltzea (elkarrizketa-adierazgailuak, adierazleak, soinuak, intonazioa eta keinuak), norbaiti zuzentzeko eta hitza hartzeko, hizketakidea inplikatzeko eta inplikazioa erakusteko; ulerkuntza kontrolatzea, erantzutea eta lankidetzan jardutea, elkarrizketak eta esku-hartzeak izatea eta bukatzea, eskerrak ematea eta agurtzea.

Jasotzen edo ekoizten diren testuetan, diskurtsoko askotariko uneez (hasiera, aurrerapena, sailkapenak, zerrendatzeak, argudioak, adibideak, enfasia, berrazalpenak, laburpena / ondorioak, gaia aldatzea, itxieraren iragarpenera eta itxiera) adierazten dituzten hainbat diskurtso-adierazgailu eta intonazioa erraz ezagutzea eta erabiltzea.

Mezua testuinguruan jartzea, denborazko edo espazio-esamolde egokiaren bidez.

Informazioa berrartzea, berariaz egin gabeko errepikapenak saihestea, gramatikako eta lexikoko ordezkapen baliabideen bidez, diskurtso koherentea eta argia ekoizteko, edukiari dagokionez; eta malgua eta arina, formari dagokionez.

Erabiltzen diren lokailuen eta diskurtsoko puntuazioaren balioa ezagutzea eta modu eraginkorrean erabiltzea, diskurtso malgua, zehatza, argia eta koherentea ekoizteko.

Testu osoan denboraren koherentzia eta aditzaren aspektua mantentzea.

Modu naturalean moldatzea, eta hartu-emanetan eta parte-hartzeetan zehaztasuna, arintasuna eta erraztasuna erakustea, aldi luzeetan ere bai.



HIZKUNTZAREN ERABILERAREN ETA HIZKUNTZA-BALIABIDEEN TESTUINGURUA: GAITASUN SOZIOLINGUISTIKOAK ETA HIZKUNTZA-GAITASUNAK.

1. HIZKUNTZAREN ERABILERAREN TESTUINGURUA

Herri baten kultura-dimentsioak eragin erabakigarria du adierazteko moduan. Ez da hertsiki hizkuntzazko alderdia, baina lotura zuzena du hizkuntzarekin, hizkuntzaren komunikazio-ikuspegian. Hizkuntza baten erabiltzaileak bere gaitasunen zati gisa hizkuntza hori hitz egiten duten herrietako kultura-erreferente orokorrak sartu behar ditu, bestak beste, sinesmenak, balioak, ikurrak, jakintza, auresuposizioak, gizartean araututa dauden ohiturak, eta abar. Horiek guztiek bateratu egingo dira edozein komunikazio-jardueratan, eta komunikazio-jarduera hori egokia edo aldez aurretik pentsatuta desegokia izatea eragingo dute. Ikasleak jakitun izan behar dira zenbat eta hobeto ezagutu xede-hizkuntzako kultura, orduan eta gaitasun handiagoa izango dutela ñabardurak eta komunikazio-asmoak ulertzeko eta adierazteko, eta edozein egoera baliatu behar dute beren gaitasun soziokulturala areagotzeko.

1.1. Alderdi soziokulturalak, gaiak eta eginkizunak

Eguneroko bizitza: ordutegiak, janaria eta edariak, jokamoldea, jaiak, aisialdiko jarduerak. Bizibaldintzak: mailak, etxebizitza, gizarte-laguntza, hezkuntza.

Pertsonen arteko harremanak: gizarte-egitura, sexuen artekoa, adin bereko eta adin desberdineko pertsonen artekoa, senitateen artekoa, lanekoak, irakasleekin eta ikasleekin dituztenak, agintariekin, zerbitzuekin.

Balioak, sinesmenak eta jokabideak: gizarte-mailak, taldeak, dirua, tradizioa, historia, gutxiengoak, erlijioa, politika, umorea.

Gorputz-mintzaira.

Gizarteko arauak: garaiz iristea, opariak, gonbitak, ospakizunak.

Errituzko jokabidea: zeremoniak, gertakizunak, antzezpenak, jaiak.

1.2. Gaitasun soziolinguiistikoaren garapena

Hizkuntza erabiltzeak berekin dakar, inplizituki, hizkuntzaren gizarte-dimentsioa ezagutzea, ulertzea eta gauzatzea. Horretarako, hizkuntza-baliabide eta -trebetasun egokiak aktibatu behar dira, hauei dagokienez:

Jokabidea, gizarteko harremanetan: formaltasuna / informaltasuna, distantzia / hurbiltasuna, hierarkia.

Hizkuntza estandarra eta egoera, talde, toki, erregistro eta estilo bakoitzeko berezko aldaerak. Erreferente kulturaleri buruzko adierazleak (aipuak, atsotitzak, zentzu bikoitzak, tradizioak, errituzko jokabideak).

1. Gizarteko harremanak: formaltasuna / informaltasuna, distantzia / hurbiltasuna, hierarkia

Gizarteko harreman ez oso ohikoetan, agurtzeko moduak eta agurtzeko kortesia ezagutzea, erabiltzea eta horiei erraz eta malgutasunez erantzuten jakitea; agurtzea, ezagunen edo ezezagunen bati zuzentzea, norbere burua aurkeztea, norbait aurkeztea eta norbaitek aurkezten gaituenean erantzutea, informazioaren edo kontakizun baten aurrean erantzutea, informazioa edo mesedeak eskatzea, eskerrak ematea, barkamena eskatzea, baimena eskatzea eta ematea, pertsonenganako interesa erakustea, zoriontzea, goraiatzea, eskaintzea, onartzea, desenkusatzeta, gonbita luzatzea, topa egitea, ongietorria ematea, eskertzea, gertakari jakin batzuetan sentimenduak adieraztea eta horrelako egoeretan erantzutea, tratatzeko modua aipatzea eta ulerkuntza kontrolatzea.

Erabiltzen diren testuetan gizarte-formula egokiak erabiltzea: mezu eta gutun pertsonalak (SMSak, mezu elektronikoak, posta arrunta), testu sozial labur tipifikatuak (gonbitak, esker ona emateko idazkiak, aitzakiak, zerbitzuak eskatzea), gutun formalak, galdera-sortak, txostenak, oharak, laneko mezuak, azterlanak, aisialdia eta eztabaida-leku birtualetan parte hartzea.



Eskatzen den formaltasun- edo informaltasun-mailari egokitutako kortesia-esamoldeak eta tratatzeko moduak ezagutzea eta erabiltzea.
 Tratamendu-aldaketaren balioa ezagutzea (konfiantza, errespetua, hurbiltzea edo urruntzea).
 Hartu-emanetan lankidetzan aritzea eta erantzutea, hizkuntzan eta kulturaren berezkoak diren baliabideekin eta intereseko seinaleekin.
 Eguneroko egoeretakoa formula edo esaldi topikoak behar bezala erabiltzea.
 Ezezagunekin daudenean, kulturaren berezkoak diren jokabidea (jarrera, begiradak, distantziak, eguraldiari buruzko galderak, isiltasuna) eta hizkuntza erabiltzea.
 Bere kulturakoak ez diren keinuak ezagutzea eta haien esanahia erabiltzea.
 Harreman fisikoei, ikusizkoei, arretazko mugimenduei eta lankidetzazko adierazpen txikiei edo soinuei (eskua ematea, musuak ematea, distantzia, begietara begiratzea edo ez begiratzea) loturiko jokabideak ezagutzea eta haietara egokitzea.

2. Hizkuntza estandarra eta aldaerak

Formaltasunezko edo informaltasunezko erregistro zaindua erraztasunez erabiltzea.
 Egoera formalak eta informalak bereiztea, eta elkarrekiteko modua kultura horretan ohikoa dena egokitzea (ofizialak, errituzkoak, formalak, informalak, lagunartekoak)
 Ahozko hizkuntza eta idatzizkoa bereiztea.
 Lagunarteko esamoldeak ezagutzea eta une egokian erabiltzea (ahozkoan, idatzizkoan, SMSetan, txatetan).
 Zein dialekto eredurekin edo aldaerarekin gauden harremanetan jakitea.

3. Erreferente kulturalak

Zenbait esamoldearen zentzu bikoitza edo zentzu itsusia ezagutzea.
 Denborazko esamoldeen balio zehatza edo erlatiboa ezagutzea (eguerdian, azken orduan).
 Beste kulturaren iraingarri izan daitezkeen edo tabu diren alderdiak eta adierazleak ezagutzea.
 Erantzun barregarriak edo mespretxuzkoak eragiten dituzten interferentzien zentzua ezagutzea.
 Esamoldeen eta esaeren esanahia ezagutzea eta erabiltzea.
 Pertsonaiei eta gertakariei buruzko esamoldeen esanahia ezagutzea.

2. HIZKUNTZA-BALIABIDEAK

IV. GAITASUN ESTRATEGIKOAREN GARAPENA

Estrategiak hizkuntzaren erabiltzaileak baliatzen duen bitartekoa dira, honako hauetarako: bere baliabideak mobilizatzeko eta orekatzeko, trebetasunak eta prozedurak abian jartzeko, testuinguruan dauden komunikazio-eskaerak betetze aldera, eta eginkizuna arrakastaz burutzeko, ahalik eta modu osoenean eta ekonomikoenean, haren xede jakinaren arabera. (MCER 4.4)

Aurreko mailetan, irakaslearen laguntzarekin edo esperientziaren bitartez, ikasleek hainbat eta hainbat estrategia ezagutu dute egoeraren arabera gauzatzeko, eta ohartu dira, jakitun izanik, beren beharretarako zein den egokiena. Hemendik aurrera, une bakoitzean komeni izango zaizkien estrategiak modu pertsonalagoan eta autonomoagoan erabili beharko dituzte.

1. Ahozko eta idatzizko ulermenerako estrategiak

Plangintza egin

Norberaren ezagutza aktibatzea, entzungo edo irakurriko duena aurreikusteko.
 Mezuak ulertzeko arrakastarako jarrera positiboa izatea.
 Edukiari eta antolaketaari buruzko hipotesiak egitea, testuingurua eta itxura abiapuntu hartuta.



Hizkuntzen arteko ulerkuntzan berezkoak diren kontzeptuak eta prozedurak transferitzea zein erabilgarria den onartzea.
Testuko elementu bakoitza ulertu beharrik gabe, testuak oro har ulertzeko gaitasuna onartzea.

Gauzatu

Lehenik eta behin, zentzu orokorra aurkitzen saiatzea eta, gero, gai zehatzak. Datu zehatzak bakarrik bilatzea, hori baldin bada helburua.
Askotariko elementu paralinguistikoetan eta estralinguistikoetan arreta jartzea (irudiak, testuetako mapa formalak, intonazioa, keinuak, tonua, eta abar).
Gai ezagunetan, testuen edo esaldi baten zentzu orokorra erabiltzea, ezagutzen ez diren hitzek zein esanahi izan dezaketen ondorioztatzeko.
Testu edo diskurtso baten gaia eta hitz ezezagunen esanahia ondorioztatzea, egoera eta testuingurua abiapuntu hartuta.
Diskurtsoko zati bakoitzaren garrantzia ondorioztatzea.

Ebaluatu

Hipotesiak egiaztatzea eta zuzentzea.
Zer ez den ulertu adieraztea.
Mezua argi dezala eskatzea edo saiatzea, hainbat modutan.
Irakurtzeak ematen duen beharren asebetetzea balioestea.
Irakurritakoa ulertzean norberak egindako aurrerapena balioestea.

2 . Mintzamenerako eta idazmenerako estrategiak

Plangintza egin

Gai garrantzitsuak jakinarazteko modua aurreikustea eta saioak egitea.
Hizketakideak kontuan izatea, bai edukia bai forma prestatzeko.
Baliabideak aurkitzea.
Eginkizuna birdoitzea.

Gauzatu

Aldez aurreko ezagutza guztia baliatzea.
Gauzak bestela esanda adierazten saiatzea.
Ekoizpena egoera jakinetara egokitzeko adi egotea.
Edukia antolatzea; eskemak egitea.
Askotariko diskurtsoen egitura ezagutzea.
Ereduak aztertzea.
Beharrezko hizkuntza-baliabideak aurkitzea eta eskuratzea.
Antzeko esanahia duten hitzak bilatzea, gabeziaren bat betetzeko.
Hitzak analogia bidez sortzea.
Hitz bat erabilgarri ez dagoenean, hitza definitzea edo parafraseatzea.
Komunikazioa eten bada, beste modu batean berriz hastea.
Zalantza izanez gero, baieztatu dezala eskatzea.
Askotariko baliabideak erabiliz zailtasunak saihestea.
Hainbat saio egitea eta aurrerapena balioestea.
Galderazko keinuak erabiltzea, zuzen dagoen edo egokia den seguru ez gaudenean.

Ebaluatu eta zuzendu

Ea ulertu den egiaztatzea edo baloratzea.
Gaizki-ulertuak zuzentzea.
Berriz irakurtzea, helburuen lorpena, antolaketa, zuzentasuna eta abar baloratzeko.
Beste hizkuntza batean idaztean plazera aurkitzea.



Beste hizkuntza batean modu pertsonalean adierazten saiatzea.

Ahozko eta idatzizko elkarrekintzarako estrategiak

Plangintza egin

Komunikazio-beharrak betetzeko eta pertsonen artean elkar ulertzeko modu gisa, hizkuntza berrian gauzak adierazteko gai izateak duen garrantzia onartzea.
Ahoz edo idatziz, hiztun natiboekin komunikatzeko interesa erakustea.
Komunikazio-egoera kokatzea (mintzalariak, hartu-eman mota).
Hizketakideek zer ezagutzen duten eta zer ezagutzen ez duten baloratzea.
Hartu-emanak prestatzea.
Esaerak, lagunarteko esamoldeak eta antzekoak buruz ikastea.

Gauzatu

Elkarrizketak hasteko, jarraitzeko eta bukatzeko prozedura egokiak erabiltzea.
Eztabaidetan esku hartzea eta hitza hartzea, esamolde egokiaren bidez.
Lankidetzan aritzea.
Elkarrizketak laburtzea eta, horrela, gaia ardaztu dezaten erraztea.
Norbaiti parte har dezan gonbita luzatzea.
Ohiko keinuen eta adierazpenen bitartez modu egokian erantzutea.
Laguntza eskatzea.

Ebaluatu eta zuzendu

Elkar ulertu dutela baieztatzea.
Esaldiaren zenbait zati berriz azaltzearen bidez, ideien garapena erraztea.

Ikasketa-prozesuko estrategiak

Zerrendatuko diren estrategia asko, ziur aski, hainbat erabiltzaileren hizkuntzak ikasteko prozesuko zati izango dira dagoeneko, eta horren jakitun izango dira edo oharkabean izango dituzte. Orain, horiez ohartaraztean datza, nahita erabili ahal izateko, eta ikaskuntza arindu dadin automatizatze aldera.

Ikasketa-prozesuaz jabetzea.

Batez ere, irakaslearen aginduei itxarotera eta beren baliabideak abian ez jartzera eta norberaren ikaskuntza bere gain hartzeko ez arriskatzera ohituta daudenei daude zuzenduta.

Hizkuntza berria zein helbururekin eta zein interes orokor eta pertsonal dela eta ikasten den gogoan izatea.

Norberaren beharrak eta interesak zehaztea.

Ikaskuntzan bertan protagonismoa onartzea.

Hizkuntzak nola ikasten diren eta jarduera bakoitzak zertarako balio duen ulertzea.

Jarduera bakoitzaren errentagarritasunarekin saiakuntzak egitea.

Testuliburuaren eta bestelako material didaktikoaren egitura ezagutzea.

Norberak ikasteko duen estiloa ezagutzea.

Askotariko teknikekin saiakuntzak egitea.

Hizkuntza praktikatzeko aukerak bilatzea.

Ikaskideen artean sintonia sortzea eta taldean lan egiteko eta praktikatzeko lankidetzak erraztea.

Aldez aurreko esperientziak eta ezagutza abiapuntu hartzea.

Erabilgarri dauden baliabideak modu selektiboan eta eraginkorrean erabiltzea: telebista, irratia, Internet, txatak, blogak, eztabaida-lekuak, harremanak, testuliburuak, gramatikak, hiztegiak, eta abar.



Motibazioa. Jarrera positiboa. Elementu afektiboak kontrolatzea

Hizkuntzak ikasteen arrakasta izan dezagun eragin handiena duten alderdiak motibazioari loturikoak dira. Irakaslearen jarrera eta ikasgelan sortzen den giroa gakoak dira motibazio hori lortzeko.

Norberak hizkuntza ikasteko duen gaitasunean duen konfiantza suspertzea.

Ikastearen aurrean jarrera positiboa izatea.

Hizkuntza berria modu jatorrean komunikatzeko motibatzea.

Hizkuntza eta kultura berriaren aurrean jarrera positiboa izatea.

Aldeak aberastasun gisa balioestea.

Hizkuntza berria ikasgelan komunikatzeko tresna gisa balioestea eta hala izan dadin sustatzea.

Komunikatzean arriskuak hartzea eta ditugun baliabideak aktibatzen saiatzea.

Akatsen aurreko beldurra galtzea eta ikasteko beharrezko direla onartzea.

Antsietatea kontrolatzea.

Hobetzeko interesa izatea.

Itxuraz geratuta dauden faseak gainditzea eta ez adoregabetzea.

Urtean zehar norberaren lehentasunak aukeratzea, bai lan egiteko moduari dagokionez, bai eta indartzea behar duten alderdiei eta gaiei dagokienez ere.

Gehien interesatzen zaizkien alderdi soziokulturaletan eta hizkuntza-alderdietan beren kabuz sakontzea.

Hizkuntza berria ikasteen norberaren ezagutza-eskemak eta norberaren esperientziak ekartzea baliagarria dela onartzea.

Hizkuntza-baliabideen falta dela eta norberaren zailtasunak gainditzeko interesa erakustea, eta erabilgarri dauden estrategiak eta ezagutza ahalik eta gehien ustiatzea.

Hobetzeko gogo handia izatea eta horretarako bitartekoak jartzea.

Ongi egindako lana atsegin izatea eta hori garatzea.

Lanaren plangintza egitea. Helburuak lortzeko teknika eta prozedura eraginkorrenak identifikatzea.

Jarraian aipatu diren estrategiak nahitaezkoak dira ikaskuntzaren helburuak aukeratzeko eta banako bakoitzaren komunikaziora hurbiltzeko orduan. Alderdi horiek funtsezkoak dira hizkuntzak ikasteen.

Helburuak jartzean eta negoziatzean aurrea hartzea.

Jardueren helburuak zein diren ezagutzea.

Gaiak eta edukiak aukeratzea.

Norberaren ikaskuntza-arloko interesak eta beharrak adieraztea.

Helburuak lortzeko teknika eta prozedura eraginkorrenak identifikatzea.

Beharrezko materiala aukeratzea.

Gauza berriei antzematerantz: hizkuntza-elementuak ulertzea, hipotesiak egiteko prozesuaren bitartez

Ditugun esperientzia eta ezagutza guztiek buru galdetzailea izatea eta hipotesiak egitea ahalbidetzen digute. Bi alderdi horiek ikasketarako mekanismoak aktibatzeke bilaketa pertsonalaren zati dira.

Aurreko ezagutza eta esperientziak aktibatzea, haien gainean eraikitzeko.

Mezuen esanahia, hizketakide baten hizkuntza-harreman posibleak eta gauzak helarazteko modua eztabaidatzea eta horiek guztiak testuinguruan jartzea.

Beharko den edo ikasiko den egiturari buruzko hipotesiak egitea.

Lotu, alderatu, asmatu eta ondorioztatzea, ezagutzen dena abiapuntu hartuta.

Bilaketa eta arreta selektiboa



Hipotesiak egiaztatzeko unea da hau. Horretarako, hipotesiak ereduetaoekin alderatzen dira, eta ekoizpenaren eragina baloratzen da edo ikasgelan galdetzen da. Egiaztatze horretatik zuzenketak eta argitzeak egiteko beharra sortzen da.

Ahozko eta idatzizko ereduak aztertzea.

Behar diren datuak aukeratzea.

Gai jakin batean hizkuntzak nola funtzionatzen duen ikustea eta ondorioztatzea.

Egindako hipotesia egiaztatu, zuzendu edo baieztatzea.

Kontsultarako materiala aukeraketa eginez erabiltzea.

Azalpenak eta argitzeak eskatzea.

Ama hizkuntzarekin eta ezagutzen dituzten bestelako hizkuntzekin alderatzea.

Norberaren ulermena kontrolatzea.

Praktika. Berenganatzea, buruan gordetzea eta berreskuratzea

Praktika-estrategien zerrenda (funtzionala zein formala) irekita utzi da, ikasleen aldaerak, egoerek eta zereginek estrategia berriak ematen dituztelako, edo hemen eskaini direnak zehazten dituztelako.

Praktikatze eta barneratzeko jarduera, teknika eta prozedura eraginkorrenak probatzea eta aukeratzea.

Harremanak ezartzea.

Oharrak hartzeko norberaren koaderno izatea.

Eskemak, laburpenak eta zerrendak egitea.

Ikaskideekin edo bakarka praktikatzea.

Ikaskideen lana errespetatzea eta balioestea.

Ikasitakoa maiz erabiltzeko egoerak sortzea.

Norbere burua kontrolatzeko jarduerak gauzatzea.

Trebetasun bakoitza praktikatzea.

Kopiatu, errepikatu, buruz ikasi, marrazkiak egin, jolasak asmatu, azpimarratu eta margotzea.

Entseatzea.

Soinuzko eta ikusizko elkarketak, elkarketa zinetikoak, testualak, formalak eta semantikoak sortzea.

Abestiak, testuak, olerkiak eta esaldiak buruz ikastea.

Norberaren akatsak kontrolatzea: «Akatsak hobetzeko» koaderno egitea, eta hobetzeko kausa eta modua idaztea.

Berrikustea.

Gelako egunkaria eramatea.

Ebaluazioa, norbere buruaren ebaluazioa eta hobetzea

Norbere lana eta emaitzak kontrolatzeko gaitasuna izateak lehenago helburuak ezartzea, bitartekoak aukeratzea, baloratzeko irizpideak izatea eta hobetzeko moduak aurreikustea eskatzen du.

Norbere ebaluaziorako parrilak ezartzea, eta lorpen-, interes-, parte-hartze eta asebetetze-mailak adieraztea.

Gelan, ikaskideekin batera, eginkizun edo jarduera bakoitzerako ebaluazio-irizpideak idaztea.

Irizpide horiek abiapuntu hartuta, norbere ekoizpenak eta ikaskideenak ebaluatzea.

Zailtasunak eta zailtasun horiek gainditzeko modua adieraztea.

Norberaren akatsak kontrolatzea eta helburuak eta hobetzeko prozedurak ezartzea.

Norberaren ezagutza eta gaitasunak egiaztatzea.

Norbere burua zuzentzea (ikaskideen eta irakaslearen laguntzarekin, edo material didaktikoa erabiliz).



EBALUAZIOA

Hainbat ebaluazio-mota daude, baina hemen landuko duguna menderatzea izango da. Ikasleek ea maila honetako berriazko helburuak bete dituzten aztertzean datza, hau da, ikasten ari diren hizkuntza benetako bizitzan aurki ditzaketen egoeren antzekoetan erabiltzeko lortu duten trebetasuna baloratzean datza. Ikasleek zenbait eginkizun gauzatu beharko dituzte, besteak beste, azterketatik kanpokoak direnak, lau trebetasunetan duen maila erakusteko (ahozko eta idatzizko ulermena eta adierazpena).

Maila horiek irizpide hauen arabera ebaluatuko dira:

Ahozko eta idatzizko elkarrekintza
